

## PEDRO BERETERRAKOARI.



«Pedro Bereterrakoa, gizon illezkorra.»

COMPOSICION PREMIADA CON UNA PLUMA DE ORO EN EL CERTÁMEN  
CIENTÍFICO, ARTÍSTICO Y LITERARIO DE PAMPLONA.

¿Non arkituko det bear dedan  
Goitandiera<sup>1</sup> sutiya?  
¿Non Omeroren berdingabeko  
Tronpeta guztiz zoliya?  
¿Non gogargizko<sup>2</sup> hunbada<sup>3</sup> por-  
Lilluragarri biziya, (titz)  
Kantatutzeko Bereterrako  
Pedroren ausartz<sup>4</sup> aundiya?

¡Musa garbiyak! atozte, nigan  
Irudikiña<sup>5</sup> sutzera;  
Nigan atozte, zentzuan argi  
Dizdizariya sartzera,  
Nigan atozte, Pedro Naparra  
Chit toki goiyan jartzera;  
Nigan atozte, doaindigozko<sup>6</sup>  
Soñu gozoak jotzera.

Nigan atozte, zabal dezagun  
Pedron izena munduan;  
Nigan atozte, piztu dezagun  
Euskal-gizonen goguan  
Aren oroitz, surik beragaz  
Erro<sup>7</sup> biziya barruan,  
Egin ditzaten azaiñ aundi yak  
Ark oi zituen moduan.

Nigan atozte, poztu dezagun  
Pedro jayo zan erriya,  
Poztu dezagun kantu gureaz  
Erronkal-ibar guztiya;  
Nigan atozte, jantzi dezagun  
Erramuz Ezka garbiya,  
Bere kolkoan antzestu<sup>8</sup> dedin  
Pedroren omen argiya.

¡O Pedro, Pedro, miragarriya!  
¡Gudari<sup>9</sup> pizkor bikaiña!  
¿Nola kantatu nezake Pisan  
Egin zenduan azaiña?...  
Orretarako bear litzake  
Pindarok zuan doaiña;  
Orretarako, premizkoa da  
Lira bat urrez egiña.

Esan bezate Florenziarrak,  
Esan bezate portitzki,  
Pisako gudan<sup>10</sup> zér garaipen zor  
Izan zioten Pedrori;  
Zer garaipen zor, Bereterraren  
Ausartza guziz goyari,  
Umant ark bere barruan zuan  
Berdingabeko garrari.

(1) Sublimidad.—(2) Inspiracion.—(3) Ráfaga.—(4) Valor.—(5) Imaginacion  
—(6) Alabanza.—(7) Denuedo.—(8) Pintar.—(9) Guerrero.—(10) Guerra.

¿Eta nik nola kantatuko det  
Napoles-eko jazarra?...<sup>1</sup>  
¿Nola nik esan zeñ aundiya zan  
Bereterraren indarra?...  
Suturik bere biyotz-barruan  
Ausardiyaren<sup>2</sup> chingarra,  
Zabaltzen zuen areriyoen<sup>3</sup>  
Martiztiyetan<sup>4</sup> ikara.

Bañan jô Pedro! zergatik zera  
Napolesetik aldentzen?  
¿Zergatik dezu mairu-lurrera  
Zure joaira zuzentzen?  
¿Ez al-dakizu zeñ asko diran  
Ayen artean gelditzen?  
¿Au jakiñikan, zure biyotza  
Bildurrak ez du mugitzen?

Baña ¿zer diot?...¿nolá bildurtu  
Naparroako semea,  
Baldin beraren biyotza bada  
Murkaitzak<sup>5</sup> beziñ tinkea?<sup>6</sup>  
¿Baldin badago dierriyaren<sup>7</sup>  
Maitetasunez betea?  
¿Baldin ark opa duana bada  
Españatarrak goitzea?

Arin, chit arin, urreratzen da  
Mairuak dauden lurrera;  
Pizkor dijoa, itsasoz arontz  
Aitz-ugarte bat artzera;  
Garturik bere gudari danak,  
Esanaz: ¡goazen aurrera!  
Pedrok uzten du gure mendean  
Eziñ artu zan Gomera.

Gomeratikan Mazalkibirra  
Joaten da Pedro pizkorrik,  
Zergatik daukan biyotz sendoa  
Garaitza-nayez beterik.  
Mazalkibirren, areriyok  
Azpiraturik utzirik,  
Españiyaren izen ederra  
Jartzen du danen gañetik.

Oranen ere bere kemena<sup>8</sup>  
Gelditutzen da goitua;  
Ikaratzen du, purrukatzen du,  
Menderatzen du mairua;  
Lurreraturik, inguratutzen  
Duen arrizko murrua,  
¡Begira! Pedro nola dagoan  
Erri barrura sartua.

Po-bazterretan, Arnon ertzean,  
Oro-bat Arjel-aldean,  
Beti topatzen zaitugu Pedro  
Martiztiyaren aurrean;  
Beti zabiltza jazarran, gogor,  
Etsayagandik urrean;  
Beti, lenengo doazen gizon  
Bulardetsuen<sup>9</sup> artean.

Nola leoiyen marrunaz, auntzak  
Ikaraz diran betetzen,  
Nola choriyak, arranoaren  
Orroaz diran bildurtzen,  
Eta turmoiyeen dunbotsarékin<sup>10</sup>  
Ardiyak diran izutzen,  
Etsaiyak, irrintz zureaz, ala  
Ziran laborriz gelditzen.

(1) Combate.—(2) Arroyo.—(3) Enemigo.—(4) Ejército.—(5) Risco.—(6) Firme.—(7) Pátria. —(8) Animo.—(9) Valiente.—(10) Estruendo,

¡O Bereterra! baña ¿zergatik  
 Arkitzen zera loturik?  
 ¿Zer egin dezu? ¿Zergatik zaude  
 Presondegiyan sarturik?...  
 ¿Gizon aundiyak iduki bear  
 Dira lokarriz beterik?...  
 ¿Oyen biziyak bukatu bear  
 Du katetzarrez josirik?...

Egiyaz ala gertatutzen da  
 Negarren ibar onetan;  
 Beti gizonak arkitzen dira  
 Nozitzen;<sup>1</sup> beti neketan;  
 Patu gaiztoa<sup>2</sup> bakarrik ez da.  
 Topatzen soko tristeetan,  
 Baizik oraindik chit gogorrago  
 Sartzen da leku goyetan.

Zuaitz<sup>3</sup> batetik aize bunbadak  
 Ditu kendutzen ostoa;  
 Ujolde bizi galmengarriyak<sup>4</sup>  
 Soildutzen ditu soroak;  
 Eguzkiyaren argi gozoa  
 Ozten<sup>5</sup> digute lañoak;  
 Ala, gugandik atsegin danak  
 Daramatz patu gaiztoa.

Ala daramatz; eta naigabez  
 Lagatzen gaitu beterik  
 Ez dala gugan antsiyak eta  
 Neke samiñak besterik;  
 Ala da beti; bestela ¿non da  
 Topatzen poza bakarrik?  
 ¿Non arkitzen da, miñikan gabe  
 Gizadiyagaz nausirik?

Baña neguak ondoren dakartz  
 Udaberriko loreak,  
 Goibel-atzetik eguzkiyaren  
 Errañuaren urreak;  
 Euri tristeak utzitzen ditu  
 Lurrak alortaz<sup>6</sup> beteak  
 Eta poza ta gozotasuna  
 Dakartz jarrayan nekeak.

Orregatikan agertzen zera  
 Gaur leku goira jaikiya,  
 Pozez, omenez estalirikan  
 Zu jayo ziñan erriya.  
 ¡Naparrak! jaso zazute, bada,  
 Zuen erritar argiya,  
 Jarririk bere kopetan «GIZON  
 ILLEZKORRAREN» koroia.

KARMELO

ECHEGARAY-KOAK.

(1). Padecer.—(2) Desgracia.—(3). Arbol.—(4) Devastador.—(5) De oztu, robar.—(6) Fruto.